

**BILBAO BIZKAIA KUTXA—EUSKALTZAINDIA:  
RESURRECCION M.<sup>a</sup> AZKUE SARIA**

*Bilbo, 1996-02-22*

*Jon Mancisidor,  
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

**IPUIN ETA BERTSOAK**

Lagun agurgarriok, egun on:

Mahaikideok: Haritschelhar, jaun euskaltzainburua, J.M. Lekuona jaun buruordea, eta Juan Luis Goikoetxea jauna, egun on.

Egintza xume honetan, euskal literaturari buruzko berri onak ematera gatoz:

Lehenik eta behin, narrazio eta olerki sailean, haur eta gazteen arloan, “Azkue” sarien banaketa egingo dugu.

Ondoren, igaz irabazle izan ziren lanak bilduz, argitaratu dugun liburuaren aurkezpena eta eskaintza egingo dugu.

Jakingo duzuenez, sari honek gaur eguneko ezaugarriak dauzkanetik, antolatzen den bosgarren edizioa da honakoa.

Hala ere, BBK-k, euskara eta euskal literaturari eskainitako laguntzak, tradizio zaharragoa dauka.

Hor dauzkagu, esate baterako, urtero-urtero antolatzen diren beste sari garrantzitsu batzuk ere:

Txomin Agirre saria eleberri arloan,  
Toribio Alzaga saria antzerki arloan,  
Felipe Arrese Beitia saria olerkian eta  
Mikel Zarate saria saioan.

Sari hauetarako deialdia, gutxi barru egingo da, eta hau, BBK eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzak, estu bezain tradizionalaren emaitza da.

Gaur banatuko ditugun sarietarako dagokienez, azpimarratu beharrekoa da, aurkeztu diren 40 lanak, kalitate handikoak izan direla, eta sarituak oso maila altukoak direla.

Ez dute lan erraza izan epaimahaikideek, eta horrek atseginez betetzen gaitu, sariak honen antolatzaile eta babesleok.

Itxuraz kontrajarriak izan arren, elkarrekin, garrantzi handia hartu duten bi egitate aipatu nahi ditut: aurreko urteetako egileak, berriro ere aurkeztu izana, eta, kalitate handiko hautagai berrien agerpena.

Lehenengoak, egileen tinkotasuna eta, euskal literaturaren arloan, izan duten aurrerapena erakusten digu.

Bigarrenak atseginez betetzen gaitu, sariaren beraren eta, gure literatura idatziaren iraupenerako, etorkizuneko berme direlako.

Ezin da egintza honetan, aipatu gabe utzi, izenpetzen ez dutenen garrantzia: egile gazteak parte hartzera bultzatu eta, beren iradokizun eta zuzenketekin, laguntzen dieten irakasle eta senitartekoena, alegia.

Horrela, gainera, literaturarekiko atxikimendua, sormenezko iharduera bilaka dadin ahalbidetzen baitute.

Guztiei, eskerrona adierazteaz gain, ondo eginagatiko ezagutza adierazi nahi diegu.

Zuen lanak bidaliz parte hartu duzuenoi, eskerrik asko, BBKren izenean.

Idazten, eta sari hauetara zein beste batzuetara ere, aurkezten segi dezazuen, animatu nahi zaituztegu. Zuentzat ona izateaz gain, euskararentzat ere ezin hobea delako.

Irabazi duzuenoi, gure zorionik beroena, eta animoa, zuen lanaren bitartez, etorkizuneko sortzaile bilaka zaitzeten.

Liburuari buruz ezin gauza handirik esan. Hortxe daukazue guztiok.

Xumeki aina, gustu handiz jaso ditu, aurreko edizioko irabazleen lanak, Juan Luis Goikoetxea irakasleak, xehetasunez eta maitasunez, gauza bakoitza bere lekuan egon dadin prestatua.

Aurrerantzean, ahalik eta hedapen handiena ematea besterik ez zaigu geratzen, liburuak merezi du eta.

Besterik gabe, Euskaltzindiarekin, euskal literatura, batik bat gazteengan, sustatzeko lankidetzan aritzeak, gure Kutxa atseginez betetzen duela adierazi nahi dut.

Gure ustez, honela, egunez egun, gure hizkuntza, gure kultura eta gure Herria eratuz goazelako.

Eskerrik asko.

Ondoren, Euskaltzaindiaren, Lekuona jaunak literatura batzordeko buruak epai-mahaikideen akta irakurriko du.

Bertan, aurtengo "Azkue" sariak nortzuri egokitu zaizkien adierazten da.

## 1995eko RESURRECCION M.<sup>a</sup> AZKUE SARIA

*Bilbo, 1996-02-22*

*Juan M.<sup>a</sup> Lekuona*

**RESURRECCION M.<sup>a</sup> DE AZKUE** sariak **EUSKALTZAINDIA** eta **BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA**ren ekimenez antolatzen dira urtero olerkia eta narrazio arloetan eta haur (10 eta 13 urte bitarte) eta gazteentzat (14 eta 17 urte bitarte).

Sari hauek aipatu erakundeek urtero antolatzen dituzten bost sarien multzoan daude: aipatutakoaz gain, *Txomin Agirre* elaberri saria, *Toribio Alzaga* antzerki saria, *Felipe Arrese Beitia* olerki saria eta *Mikel Zarate* entseiu saria.

1991n erakunde biok, 1958tik antolatu ohi ziren sarietako batzuk batu eta deialdia urteroko maiztasunez egitea erabaki zuten, eta horrelaxe sortu zen egungo deialdia.

Oraingo mintzagai dugun *Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue* izenekoan, hiru sari antolatu dira arlo (olerkia edo narrazioa) eta adin bakoitzeko. Lehenengo sariari 50.000 pta. egokitzen zaizkio, bigarrenari 40.000 eta hirugarrenari 30.000.

Horrez gain, 10.000 pta.ko zuzkidura ezarri da irabazleen laguntzaileentzat. Oro har, lehiakidea parte hartzera animatu eta beraien sormen lanean laguntzen dieten irakasle edo senitartekoak izaten dira.

Azkenik, sari gehigarri gisa, lan sarituak biltzen dituen liburua argitaratuko da. Egintza beronetan aurkezten dugu 1994ko sariak biltzen dituen, eta lehiakideetako askok sariari esker ikusi dite lehenbizikoz euren lana argitaraturik. Liburua Juan Luis Goikoetxea irakaslearen gainbegiraketa teknikoaz egiten da eta dohainik banatzen da ikastegietan eta BBKren Kultur Aretoan.

1995eko deialdira 40 lan aurkeztu dira eta Xabier Altzibar, Iñaki Bernaola eta Joan Otaegik osaturiko epaimahaiak ondorengoei esleitu die saria:

### **Haurrak (10 eta 13 urte bitarte)**

#### *Olerkia*

Aurkeztutako lanak: 3.

1. saria: "Natura eta Gizakia", Arantzazuko Gaizka Amondarainena Laguntzailea: Karmele Angoitia. Arratia Ikastola.

*Narrazioa*

Aurkeztutako lanak: 4.

1. saria: “Tim kale txakurraren istoria”, Beasaingo Irati Goikoetxearena. Laguntzailea: Jon Elozegi. Alkartasuna Lizeoa.

2. saria: “Non daude nire ardiak”. Arantzazuko Gaizka Amondarainena. Laguntzailea: Karmele Angoitia. Arratia Ikastola.

**Gazteak (14 eta 17 urte bitarte)***Olerkia*

Aurkeztutako lanak: 20.

1. saria: “Zuri”, Ondarroako Leire Bilbaorena.

2. saria: “Egusentirarte”, Anoetako Joana Garmendiarena. Laguntzailea: Elena Baribar. Laskurain Ikastola.

3. saria: “Non deus sed femina”, Markinako Unai Gotirena. Laguntzailea: Mari Eli Ituarte. Lea-Artibai Ikastetxea.

*Narrazioa*

Aurkeztutako lanak: 9.

1. saria: “Beste urtebete oraindik”, Ikaztegietakoa Maialen Zubeldiarena. Lagunkailea: Iñaki Zubeldia. Aita.

2. saria: “Aurkako bikoiztasunaren gurpila”, Beasaingo Ekaitz Goikoetxearena. Laguntzailea: Jon Elozegi. Txindoki Batxilerato Institutoa.

3. saria: “Exilioa zen”, Arantzazuko Nagore Amondorainena. Lagunkailea: Juantxu Rekalde. Arratia Institutoa.

Aipagarria da oraingo irabazleetakoa lauk (Unai Goti, Ekaik Goikoetxea, Nagore Amondorain eta Maialen Zubeldia) saria eskuratu zutela aurreko edizioaren batean eta adin txikiagokoen mailan; beraz, agerian geratu dira beraien sormen lanaren aurrerapena eta finkapena.

Leire Bilbaok, bestalde, Ondarroako Agustín Zubikarai saria eskuratu zuen; beraz, Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue sari honek euskarazko literaturan erakutsi duen ekintasan eta kalitatea berresten dizkio.

## **IPUIN ETA BERTSOAK**

1994ko 'Resurreccion Maria Azkue' sarien argitalpena

*Bilbo, 1996-02-22*

*Juan Luis Goikoetxea*

Oraingo honegaz, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak laugarren liburua argitaratzen du.

Urteroko ohiturari jarraituta, 1.000 ale inprimatu dira.

Ipuin eta Bertso liburu hau, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxak, eskola, ikastola zein ikastetxetara bidaltzen duten arren, egoki eta bidezko da nork bere gazte-erakundetik behar dituen aleak eskatzea; gutxienez eskatzeko ardura hartzea. Gainerako irakurleek aski dute liburudendetara hurreratzea.

### **IDAZLANETAKO BERBAK ETA IDEIAK**

Liburu freskoa da Ipuin eta Bertsoak izeneko hau. Gazteen eskutik datorrena. Berria. Eta nori ez zaio zerbait berriaren irakurketa gustatzen? Nork ez du artearen lurralde turistikoetan zehar bidaiatzea atsegin? Guk irakur dezagun, baina, sortzaileak behar dira. Ideien sortzaileak. Ezen hizkuntzaren ezintasunean baino ideia berrien gabezia kausitzen baitut nik literatur liburuaren erakarpenik eza. Irakurri ditudan testu batzutan berbak egiten du ideia, ez da ideia hitza sortzen duena.

Zuek Ekain, Goiuria, Oibar, Urtzi, Javier, Arkaitz eta Ekaitz —beti ere duzuen adin desberdintasunetik—, ohartuko zineten, idaztearen ekintzak berak argitu egiten duela guregan, aurretik oso diafano bereizten ez genuena, nahiz eta geure barruan gorde. Idaztea, erdi lotan dauzkagun ahalmenak bizkortzeko bidean oso ihardunbide aparta da.

Guzti hori diot, uste dudalako, ondo idatzi gura bada, esperientziatik abiaturik behar dela. Norbere bizitza deskribatzea interesgarriago gerta daiteke besteentzat, liburu hemengo nahiz hangotik jasoa baino.

Idazle trebatuak zein gazteak, beti idazten du ederto, baldin bere posibilitate eta interesen arabera eskribatzen badu. Badakit zuetariko zenbaitek papereratzeko zeneukaten apurrak ez zirudiela, berez, ezer harrigarririk. Hala ere, gutxienez modu harrigarrian azaldu duzue. Gutxi ez dena. Zeren garai desberdinetan, literaturaren ederrak berak ere janzkera berria behar baitu atsegin gertatzeko.

## LIBURUKO IDAZLEEN TIPOLOGIA

Berba egiten duen erara idazten duen autorea aurki bageneza, zer ondorioztatuko genuke? Oraindik ikasteari ekin behar diola bai, behintzat. Ezen ezagutu beharrezkoa baita testu idatziak ez direla espontaneoki sortzen, ahozkoen modura. Aitzitik, testuak idatzi eta berridaztekoak izanik, zuzendu eta berzuzendu behar direla. Euskara ezagutzen badu ere, idazketarako estrategiak ez menperatzean, idazlea blokeatu egiten dela. Kodigoa bereganatuta daukan arren, idazteko estrategiez ere jabetzeko premia duela.

Horrenbestez, erran dezadan: nor naiz ni zuzentzailea, hamairu urteko neska edo mutilak *dago* aditza orrialde berean hamabost biderrez errepikatzen badihardu, aldatu edo zuzentzeko? Hori eginez gero, ez litzateke egileak sortua, antzeko beste bat, baizik.

Zer esan, aldiz, kodigorik gabeko idazleaz, euskararen menperatze nahikorik ez izatean, arestian aipatutakoaren antipodetan dagoenaz? Honetan, "bona fide", epaimahaiak malgutxuegiak ere badirela baieztatzen ausartuko nintzateke, sarituriko testuren bat edo besteren kasuan. Egia da, bestalde, idazle batzuk kodigoan ez darakustena, konposizio-ko estrategietan jantziak izatearen bidez, lor dezaketela idazlana duintzea. Hala eta guztiz, kodigoari dagozkion ortografia, gramatika, testu-koehesioaren gabezia eta abar ere beharko lirateke minimoetan jagon, urterik urtera maila josoagoa eskatuz joateko. Baietz onartu gazteak, gero eta gehiago eskatzen diozun neurrian, bera ere halaxe erantzuteko gai sentitzen dela.

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak, saria irabazi duzuelako zorionak emateaz gainera, idazle jantziak izateko bidean goien gradora hel zaitetzten animatzen zaituzte. Zuei eskerrak, badauka gazte euskaldunak irakurliburu berria *Ipuin eta Bertsoak* liburu polit honegaz.

Arkaitz Estiballesek idatzi eta metroaren asaba zahar izan zitekeen azaleko tren-makinaren azpian ageri den testuak dioskunaz amaituko dut:

Egon nintzen behiala  
 estazio zahar batean zure zain  
 zain amodioaren trena noiz etorriko  
 etorriko zinenean agurtzeko  
 agurtzeko eta musu emateko  
 emateko zerbait baineukan  
 neukan bihotzerdia hain zuzen ere  
 hain zuzen ere zain nengoen.

## **RESURRECCION MARIA AZKUE SARIA:**

### ***IPUIN ETA BERTSOAK***

*Bilbo, 1996-02-22*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jaun-Andereak eguerdi on!

Bozkarioz beterik nago bi arrazoinengatik. Lehenik, erran didatelakotz egun ager-tzen diren lanak kalitate onekoak direla eta bigarrenekorik, duela bizpahiru urte irabazi zutenak, berriz ere gure artean dauzkagula bertze goragoko sari baten jasotzeko. Horrek erakusten du segitzen dutela, nahi dutela idatzi, haien gogokoa dela euskararen jabe izaitzea, hitz egokiak aurkitzea, joskera ona zaintzea dituzten ideien azaltzeko. Alabaina, hori da bide zuzena eta bakarra, idazle izaiteko, idatzi, ezabatu, berriz idatzi, onetik hobera joanez...

Zuek, haur eta gazte maiteak, izanen zarete biharko euskal idazleak, baina argi eta garbi izan dadila zuen gogoan idazle izaiteko bidea ez dela bide erraza eta laburra, zaila eta luzea aldiz, nahi baldin baduzue euskararen edertasuna zaindu, bertze edertasun ba-ten sortzeko, idazlea baita, berez, edertasun sortzaile.

Bilbao Bizkaia Kutzak eta Euskaltzaindiak bortz sari emaiten ditugu elgarrekin ele-berri, olerki, antzerki eta saiakera sariak idazle helduentzat. 'Resurrección Maria Azkue' deritzan sari hau gazteentzat sortua da, arrakasta handia daukalarik.

Egun, aurkezten dugu, iaz saristatuak izan diren lanak liburu batean. Badakit idaz-learen ametsa dela argitaratua izaitzea, ikustea liburu batean berak idatzi duena, bertze batzuei, hots irakurleei eskainia. Hori lortu duzue, gazte maiteak, Bilbao Bizkaia Ku-txari esker ez baititu sariak emaiten bakarrik, baina argitaratzen ere saristatuak diren lanak.

Beraz eskerrik beroenak, Bilbao Bizkaia Kutxari eta ere zuei saristatuak izan za-retenoi eta baita partaide izan diren bertze guziei.

Aparteko eskerrak epaimahaikoei eta zuri Juan Luis Goikoetxea jauna, egun aur-kezten den liburuan izan duzun partaidetzagatik.

Zorionak denei!

## **BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: 'R. M.<sup>a</sup> AZKUE' LITERATURA SARIAK, 1995**

*Bilbo, egoitza, 1997-I-28*

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*

### **RESURRECCION MARIA AZKUE SARIAK, 1995.EKO LIBURUAREN AURKEZPENA**

1995ean Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak deitu zuten Resurreccion Maria Azkue Sarian, irabazle gertatu zirenen idazlanak batzen dituen "Ipuinak eta Bertsoak" liburua aurkezten dugu 1997.eko otsailaren 14an, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren aretoan. Erabili ere behin banan dira egoitzak erabiltzen, batean BBKkoa, hurrengoan Euskaltzaindiarena. Oraingo honegaz, bosgarren liburuak ikusten du argia.

1995.eko urteak oparotasuna eskaini zigun Gazte Literaturan. Horren frogarako nahiko dugu argitaratu ziren narrazio goi mailako batzuk zein horien idazleak aurrera ekar-tea:

"Denboraldi bat ospitalean" Juan Kruz Igerabiderena.

"Nire eskua zurean" Mariasun Landarena.

"Xolak badu lehoien berri" Bernardo Atxagarena.

"Hakuna Matata" Jon Arretxerena.

"Biolin bat Maribeltxarentzat" Patxi Zubizarretarena.

Zorionean, gainera, itzulpenari esker, haur gailegoek, ume katalanek, gazte inge-lessek nahiz gazteleradunek irakurri dituzte honezkero hauetariko zenbait.

Gehitzen badiogu horri, 1996.eko uztailan Xabier Etxanizek, Jean Haritschelhar buru zen epaimahaian aurkeztu zuen "Euskal Haur eta gazte literaturaren historia" cum laudeduna, aitzinerako urratsak eman ditugula ohartuko gara. Gaur ez diraugula atzo-koan. Marijane Minaberrik 63an argitaratu zuen "Itxulingo anderea" ipuin liburutik egungora bide ibili gabeak ireki direla.

Guk, dena dela, gaurko ekitaldian, 1995eko urte horretan idazle saritu gertatu ziren gazte eta gaztetxoak ditugu aipatuko bereziki. Idazle horizontalak, adinkideentzat es-kribatzen dutenak:

11 urteko Irati Goikoetxea.

13 urteko Gaizka Amondarain.

15 urteko Ekaitz Goikoetxea.

16 urteko Nagore Amondarain eta Unai Goti.

17 urteko Leire Bilbao, Joana Garnendia eta Maialen Zubeldia.



Ez legoke lekuz kanpo, bestalde, idazleoi esker goien gradora igon duten Sara hiri berriak aipatzea: Beasain, Arantzazu (Arratiakoa), Ikaztegieta, Ondarroa, Anoeta eta Markina.

Ez didazue esango ez dela zirrarezkoa, kilikagarria, arestian izentaturiko idazle nagusi, urrutiko horien narrazioen parean, adinkidearena irakurtzeak zer sentipen, indar bultzatzaile sor lezakeen gazteengan jakitea!

Zeren, dakizuenetz, Euskal Idazleen Elkartek arrakastaz antolatu ohi duen "Idazleak Ikastetxeetan" kanpainaren barruan, elkarrekin egiten baitute topo profesionalek eta idazle saritu gazteok. Gelako saio intimo horretan, idazle handi hori ez da gehiagotan mitiko izango, ezta arrotz ere. Eta saridun neska-mutilek idaztearen bizipoza, fikzioaren abenturarekiko ilusioa bereganatuko dute.

14 urtetik gora, gaztea literaturarako adinik ez den sasoian sartzen dela baieztatzen da. Hala ere, ezingo dugu ukatu, bai irakurzaletasunari zein sormenari dagokionean, gazteak aro adierazgarrian bizi direla. Joseba Intxaustik orain dela urteak idatzi zuenez, garai horixe baita literaturaz ere maitemintzeko garaia.

Nagusiok, beraz, ume eta gazteentzat ekoizten den edozein produktu, kulturala denean batik bat, ez dezakegu har zerbait tikiakoa bezala, gehienetan hartu izan dugun moduan.

1996. urtea ia aspaldikorik urriena izan da, nagusien sariketa askotara aurkeztu den idazleen kopurua. Alde honetatik, interesgarri bezain beharrezko da literaturako jokalaria berrientzako harrobiari produkzioan eustea, Euskaltzaindiak BBKrekin batera egiten duen erara. Horrela behar egingo ez balitz, atzeritarrek fitxatu beharko lirateke —arlotan honetan neurtutako proportzioz premiazkoak—, bertokoez mailarik ez erakustean. Geure pozerako, gaur egun hemen haur literaturan sortzen eta itzultzen denaren egoera nahiko orekatua eta osotua da.

Umeak zein gazteak sortzen duen literatura ez zaio adinkideari bere mundutik kanpoko gertatuko, ezen, berez, Bernardo Atxagak dioenetik, "Ez da hain erreza umeentzako idaztea, esate baterako, umeentzako umorea egitea". Euren eraikia denean, ordea, beraienengoagotzat, propioagotzat hartuko dute zalantzarik gabe.

Horrez gain, idazle gazte sarituok, nagusioi dardara eragiteko adinako indar duten testuak ere eraiki dituzte Ipuinak eta Bertsoak liburu honetan. Guk frankotan gazteen aitzinean erakutsi gura dugun bizitza sasiapaindua, erreallitate gordina zaputzen digute.

Gazteen testuak irakurri dituenak, badaki ez dutela moral ikasketarik atsegin. Izan ere ez baitira leloak eta badakite non dagokeen ona eta non txarra. Hortaz, ez dugu beti zerbait irakasteko helburua erabili behar, aski da eta gazteek eurek sortu duten literaturaz gozatzen ikustea eta geuk beraiekin batean plazer ukaita.

Hara Maialen Zubeldiaren testua: "Malko tanta lodiak doaz nire masailetatik behera, ohea bustitzera. Nola galde ziezadakeen hori nire amak? Inoiz ez naiz oso ondo eraman amarekin. Uste dut aitak ni horrenbeste maite nauelako, beti izan didala inbidia pixka bat eta beti ikusi izan nau etsai bat bezala. Ez dut inoiz, nire lagunek egin ohi duten bezala, amarekin mutilei buruz hitz egin, eta gutxiago sexuari buruz. Ama beti izan da ama, nire gela txukuntzeko, arropak garbitzeko eta janaria prestatzeko. Baina ez hitz egiteko, ez nire gazte denborako dudak argitzeko".

Zorionak eta eskerrik asko.